

**MARKINA-XEMEINGO “UNI” FRONTOIA:
HERRIGINTZARAKO ETA IDENTITATEA
SORTZEKO GUNEA**

*Erdi-erdian Markina zabarra
aldamenean zelaia,
ertzeke ibar jorian zehar
jauzika dator ibaia.
Orain pilota-gaia
euskal kirol alaia
ezin abaztu inola,
nork ez daki gaur Markina aldean
zesta punta hor dagola?*

Luis Baraiazarra

Nire Sasoiko Markina-Xemein (2009:462)

Artikulu honetan, Markina-Xemeingo “Pilotaren Unibertsitatea” izeneko frontoiak markinar-xemeindarrentzat izan dituen, gaur egun dituen eta etorkizunean izan behar dituen funtzioak aztertzen ditut, baita gizarte bizitzan izan duen garrantzia ere. Testuan zehar defendatzen dudan hipotesia da “Uni” Frontoia herrigintzarako ondare materiala dela; hau da, herria egiteko azpiegitura. Baina, horrez gain, iruditzen zait markinar-xemeindarron identitatearen oinarrietako bat ere badela; identitatea talde bati kohesioa ematen dioten balio, tradizio, ikur, sinesmen eta ohituren multzo bezala ulertzen dudalarik.

Markinar-xemeindar identitatea

Markinar-xemeindarron identitateak hainbat oinarri ditu:

1. Oinarri fisikoa: Artibai ibaiak sortzen duen bailaran bizi gara markinar-xemeindarrak, Bilbotik 51 kilometrotara. Toki lau batean kokatua dago herri-gunea, baina malkarrez, muinoz eta tontorrez inguratua. Horrek eta industria gune garrantzitsuenetatik urrundua egoteak industriaren garrantzia Bizkaiko beste toki batzuetan baino txikiagoa izatea ekarri du.
2. Oinarri historikoa: historia luzea duen herria da. Markina-Xemein bi herrik osatzen dute: Markinako hiribildua eta Xemeingo elizatea. XIV. mendean (1355. urtean) Bizkaiko Jaun Don Tello, Gaztelako Alfonso XI. aren semeak, Villaviciosa de Marquina hiribildua sortu zuenetik, markinar eta xemeindarrek matxinadak, gerrak eta era askotako istiluak bizi izan dituzte (XVIII. Mendeko matxinada, Konbentzio Gerra, Napoleonen inbasioa, karlistaldiak, gerra zibila...), baina baita momentu alai eta zorionsuak ere; markinar eta xemeindarrak markatu dituztenak.
3. Oinarri kulturala: gure aurrekoek landu eta guk jaso eta lantzen jarraitzen dugun tradizio kulturalaren, ohituren eta kirolen ondorioa gara. Euskal dantzak, jaiak, zestapunta... Markina-Xemein mendeetan transmititu diren idatzi gabeko arau, balio eta jokabide kultural askoren ondorio da.
4. Oinarri linguistikoa: gune industrial garrantzitsuenetatik urrun egoteak eta orain dela 50 urtera arte nekazaritza indartsu egoteak ahalbidetu du euskara beste eskualde batzuetan baino hobeto gordetzea. Momentu honetan, markinar-xemeindarren %79 euskaraz hitz egiteko gai da (http://www.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/markina_xemein.html)

5. Oinarri ekonomikoa: 50. hamarkadara arte Markina eta Xemein herri nekazariak ziren. Dena dela, 50. hamarkadatik 80. hamarkadaren erdi aldera, egitura ekonomiko berri batean sartu ginen (Barinagarrementeria, 1989:118). Gaur egun, industria eta, bereziki, zerbitzuak dira nagusi.
6. Oinarri politikoa: hauteskunderen emaitzek argi erakusten dute herri abertzalea garela.
7. Harremanen edo sareen oinarria: gizarte sare aberatsa duen herria gara. Markinar-xemeindarrak kirolari, kulturari eta politikari loturiko hainbat elkartetan parte hartzen dute. Herri bizitza aberatsa dauka.
8. Oinarri subjektiboa, emozionala edo psikosoziala: markinar-xemeindar izatearen kontzientzia dugu. Markinar-xemeindarrak sentitzen gara.

Zer da Markina? Mendi artean dagoen herri euskalduna, abertzalea, ohituren maitalea, gizarte bizitza aberatsa duena eta markinar-xemeindar sentitzen dena.

Dena dela, argi utzi nahi nuke, nire ustez, Markina-Xemein ez dela herri estatikoa. Egunero aldatzen eta birsortzen ari da. Bizirik dagoen herria da.

Esan bezala, 50. hamarkadatik 80. hamarkadaren erdi aldera, nekazaritzan oinarritutako eredu ekonomikotik, industrian eta hirugarren sektorean oinarritutako eredura pasatu ginen. Gaur egun biztanleria okupatuaren %3,2 bizi da nekazaritzatik (<http://www.eustat.eus>).

Ikuspuntu erlijiosotik ere aldatu egin da. Industrializazioarekin, eta gertatu den baloreen aldaketarekin gizartearen sekularizazioa gertatu da. Errepublika etorri zenean (1931), 70-77 bat moja, abade eta fraide bizi ziren Markina-Xemeinen. Gaur egun, 10-12 elizgizon eta moja daude. 80 urtetan, erlijio katolikoa asko ahuldu da. Aldiz, etorkinen etorreraren ondo-

rioz, beste sinesmen erlijioso batzuk indartu egin dira: besteak beste, Jehovaharen Lekukoak, kristau ortodoxoak edo Islama.

Herri abertzalea da, baina azken urteotan kolore desberdineko alkateak ezagutu ditugu.

Ez da ere herri homogenea. Momentu honetan, markinar-xemeindarren %14,22 atzerrian jaioa da (<http://www.eustat.eus>). Markina-Xemein orain dela 20 urte baino anitzagoa da hitz egiten diren hizkuntzen, sinesmen erlijioen eta herri bizi diren pertsonen jatorriaren ikuspuntutik.

Markina-Xemein anitza dela eta etengabe aldatzen ari dela onartuta ere, mendeetan gureganaino heldu den markinar-xemeindar identitatea sendo dagoela esango nuke. Hots, iruditzen zait indartsua dela Markina-Xemeineko kide egiten gaituen pertenezia sentimendua.

Frontoia: ondare materiala

Abesua kalea 12A, Markina-Xemeingo erdigunean: “Pilotaren unibertsitatea”.

Kanpotik begiratuta ez dirudi eraikin handia denik. Txertatua dagoen beste eraikinen fatxadekin batera begiratzen badiogu, ezin da imajinatu barruan horrelako huts gune erraldorik dagoenik. Baina, barnera sartuta, inpresionatu eta hunkitu egiten du.

Begi bistan agertzen den espazio hutsak neurri itzelak ditu. 54,2 metro da luze, 11 metro zabal, beste horrenbesteko al-tuerarekin. 900 bat lagun sartzten dira jarrita eta beste hirurehun bat gehiago, tente. Lea-Artibai osoan ez dago horrelako beste espazio handirik.

Berezitasun fisiko hauek izanda, frontoiak rol garrantzitsua jokatu du eta jokatzen du Markina-Xemeingo gizarte bizitzan.

Lehenengo eta behin, frontoia pilotan egiteko toki ezin hobea da. Duen luzeragatik bereziki egokia da zesta-puntan aritzeko.

Frontoia pilota partidak ikusteko eta pilotaz gozatzeko gunea ere bada. Esan bezala, 900 pertsona sartzen dira ezarrita eta 300 tente.

Pilotan ikasteko tokia ere bada. Bai eskuz eta bai zestaz irakasten da, gaur egun, frontoian.

Zalantza gabe, kirolari eta zehazki pilotari loturiko azpiegitura garrantzitsua da. Baina hori baino gehiago da. Izan ere, iraganean, zein gaur egun, gauza mordoa mugitzen da espazio erraldoi honen inguruan. Hots, espazio fisiko handi honek beste funtzio batzuk ere baditu:

1. Funtzio kulturala: ohituraz, markinar-xemeindarrek beti erabili izan dute frontoia ekitaldi kulturalak antolatzeko: erromeriak, bertso saioak, antzerkiak, dantza emanaldiak, pailazoen saioak...Frontoia kultur gunea izan da.
2. Funtzio soziopolitikoak: hainbat aldarrikapen sozial eta politikoren aldeko ekimenak antolatu dira frontoian: baserriarren, ikastolaren edo presoen aldeko aldarrikapenak egin dira. Ahaztu gabe, hauteskundeetan bozkatzeko tokia ere badela.
3. Funtzio soziala: Karmen jaietan eta jai handietan, frontoia gizonen (gero eta gehiago baita emakumeen) elkar-gune eta erakusleho izan da. Zestazko pilota partidetara joatea ekintza soziala izan da. Eta jaiegunetako partidetatik kanpo, frontoia pilotari ohiak tertulian elkartzeko lekua ere bada. Gehiago esango dut, Barbara Roseweinek sortutako kontzeptua erabiliz (2006), frontoiaren inguruan "komunitate emozional" bat dago; hots, frontoia pilotari loturiko emozioak (bereziki zesta-puntari lotu-

riko emozioak) partekatzen dituzten pertsonak biltzeko gunea da.

4. Funtzio sinbolikoa: pilotarien argazkiak, trofeoak, Markina-Xemeingo armarrak, ikurrinak, Ricardo Iñurriak Erdoza Menor pilotariaren omenezko oroitarria...frontoia, gaur egun, zesta-puntaren museo bat da; zesta-puntaren espazio sinbolikoa.
5. Funtzio ekonomikoa: pilota eta frontoia diru iturri garrantzitsua izan dira Markina-Xemeinentzako azken 130 urteotan. XIX. mendearen bukaeratik aurrera, Markinako eta Xemeingo gazte askorentzat zesta-punta irtenbide profesionala izan da. Bestetik, frontoian antolatu diren ekitaldi kultural eta kirol ikuskizunak lagungarri izan dira herriko ekonomiarentzat. Pilota partidek zein kultur ekitaldi eta ikuskizunak aberastasun ekonomikoa ekarri diete taberna eta dendei.
6. Azkenik, ezin dugu ahaztu, Gerra Zibilean, 1936ko urritik 1937ko apirilera, autoen garaje bezala erabili zela (Juaristi, 2011).

Laburbilduz, frontoiak, "Pilotaren Unibertsitateak", aberastasun kultural, politiko, ekonomikoa eta soziala ekarri dio Markina-Xemeini. Herri gisa antolatzeko, elkartzeko eta hazteko aukerak eman dizkio.

Frontoia, izatez, hiru horma besterik ez dira, baina horma horien artean espazio magikoa sortzen da. Frontoia herrigintzarako azpiegitura garrantzitsuenetako bat da.

Gainera, espazio horretan, ideologia eta maila sozioekonomiko desberdineko pertsonak elkartu gara, bai pilota partidak jokatzeko, partidak ikusten zein kultur ekitaldi eta ikuskizunetan parte hartzen. Zentzu horretan, frontoia kohesio sozialaren iturri ere bada¹.

¹ XVIII. mendean sortu zen eta Markinan ezagutzen den lehen frontoia

Frontoia: ondare ez-materiala

Frontoia ondare material garrantzitsua da markinar-xemein-darrentzat, bai, baina baita ondare ez-materiala ere. Hau da, frontoia belaunaldi batetik bestera transmititu den tradizio kultural aberatsaren iturri da:

1. Frontoia inguruan, hizkuntza, hitz egiteko modu eta esaera bereziak sortu dira: mucho, bolea, txurro, luze, eskas...
2. Zesta-puntan jokatzeko moduak, posturak, pilota zestaz sartzeko eta botatzeko erak... sortu dira. Estetikak bereziak sortu dira; hau da, ederrak diren eta emozioztatzen gaituzten pilota hartzeko moduak, jokaldiak edo tantoak.
3. Pilotan erakusteko moduak sortu dira. Gaur egun, ume eta gazte ugari dabilzan eskuz zein zestaz ikasten, eta zesta-punta irakasteko eskolaren tradizioak urte asko ditu.
4. Zestak eta pilotak egiteko tradizioa sortu da. Gure herrian artisau ugari izan ditugu zestak eta pilotak egiten eta konpontzen.
5. Ikur edo sinboloak sortu eta transmititu dira belaunaldi batetik bestera; baita ikonoak², mitoak, anekdotak, erri-

(“El Siete” izenekoa) buruz hitz egitean, Mugartegik esaten du pilotak maila sozioekonomiko desberdineko pertsonak elkartzen zituela: “Aquel era un lugar donde se reconcentraba la vida marquina. Teniendo enfrente el *Robledal de la Villa* y dada su orientación al Mediodía, en él se reunían todas las clases del pueblo en fraternal camaradería, sin que esta fueres nunca ocasión de una mal entendida igualdad, conservándose el respeto debido a las personas principales de la Villa, que no encontraban inconveniente en quitarse sus bordadas casacas para jugar de vez en cuando un partido de pelota” (Mugartegi, 1927:142).

² Zesta bera da markinar-xemeindarren ikonoetariko bat. Horrela, sarri askotan, barruko espazioak apaintzeko erabiltzen da edo esker ona adierazteko oparitzen. Luis Baraiazarrak, bere Nire Sasoiko Markina-Xemein liburuan dioen bezala, Zerutxuk Pantxoa eta Peiori zesta bana oparitu zieten Markina-Xemeinen eskaini zuten kantaldi baten ostean (Baraiazarra,

tuak eta abestiak: pilotariak kantzara atera eta ikusle-goari agurtzeko erritua, pilotarien ezizenak, munduko kirol bizkorrena gure herrian errege izatearen harrotasuna, Amerikako Estatu Batuetan pilotariak ezagututako aktore eta jende ezagunari buruzko anekdotak, pilotarien gertaera barregarriak, “Vamos al Fronton” abestiak edo pilotak frontisa jotzen duenean sortzen dituzten emozioak, kantzax hil zen Eusebio Garate pilotari mitikoaren historia, “Pilotaren Unibertsitatea” gure herrian izatearen harrotasuna...

6. Idatzi gabeko arauak, kode etikoak, balioak eta jokabideak sortu dira. Kantzax pilotariak pilotan jokatzen dute, apustuak egiten dituzte; elkar ezagutzen dira, borrokan aritzen dira, baita haserretu ere...baina umeei txikitatik irakasten zaiena da kantzatik ateratzean lagun izaten jarraitu behar dutela. Frontoia balio positiboak eskuratzeko tokia da; bizitzaz ikasteko gunea.
7. Frontoiari eta zesta-puntari esker, markinar-xemeindarrak mundua ezagutu dugu. Txina, Mexiko, Filipinak, Egipto, AEB...Frontoiari eta zesta-puntari esker, mundura zabaldu ginen, eta mundua Markina-Xemeinen sartu zen. Horrek gure herria aberastu eta markatu du.
8. Frontoia eta zesta-puntaren inguruan memoria historiko aberatsa dago. Frontoia gure herriaren memoria da; iragana etorkizunarekin lotzen duen espazioa da.

Frontoia eta zesta-puntaren inguruan sortu den ondare ez-material honek guztiak eragina izan du bertan pilotan ikasi eta jokatu dutenengan, baina baita markinar-xemeindar guztiongan ere. On-

2009:216-217): “Zerutzuk eraturiko jaialdi jendetsu bat dot batez be gogoan. Jendea poz-pezik. Amaieran oroigarritzat zesta puntako txistera bana emon jaken; orain dala gitxi entzun neutsan Peiori oraindino han daukala ondo gordeta garaikur baliotsu legez”.

dare ez-material hori, guztiongan txertatua dago, eta markinar-xemeindar bezala dugun identitatea eraikitzen du³.

Frontoiarekiko atxikimendua historian zehar

Gutxienez XVIII. mendetik, markinar-xemeindarron identitatearen parte dira pilota eta frontoia. Gehiago esango dut, XVIII. mendetik, markinar-xemeindarrek maitasun handia izan diote frontoiari. Horren erakusle da gutxienez azken 300 urteotan markinar eta xemeindarrak etengabe erabili izan dutela frontoia, eta hainbat aldiz berriztatu eta eraldatu dutela, beti ere jokorako baldintza onenekin hornitzeko helburuarekin⁴.

Egoera ekonomiko txarretan ere, markinar-xemeindarrak beti topatu dute moduren bat frontoia hobeagotzeko, konpontzeko eta zaintzeko.

Markinan ezagutzen den lehen frontoia XVIII. mendearen hasierakoa da. Zehatzago esanda 1720an sortu zen, orduko alkatea zen Andres Ignacio Ansotegik bere jauregiaren inguruko baratzak zarratzeko horma bat eraiki ostean. Frontisa Ansotegi jauregiaren hormetako batean zegoen, eta alboko horma Markinako hiribilduaren harresiaren zati bat zen (gaur

³ Donald Trumpek bultzatutako migrazio politen ondorioz, Jon Mandiola markinar-xemeindarrak Amerikako Estatu Batuetara zesta-puntan jokatzera joateko dituen oztopoei buruz hitz egiterakoan, argi adierazten zuen Markina-Xemeingo etxe askotan zesta-puntari loturiko transmisio garrantzitsua egon dela (Saenz, 2018): "Todavía tengo una pequeña esperanza para ir, pero está difícil. Lo único que he oído desde pequeño son historias de allí. Si algunos nacen con un pan debajo del brazo, nosotros nacemos con una cesta. Con lo conocida que ha sido en todo el mundo, es una pena que se pierda".

⁴ Mugartegik 1927an zioen bezala: "Siempre fué considerado el juego de la pelota entre los marquineses como su más principal y preferente diversión, por cuyo motivo, desde tiempos muy antiguos, tuvieron frontones en los que se practicó tan higiénico y clásico sport, no dudándose en gastar del erario municipal cantidades extraordinarias para lo que representa la potencia económica de la Villa, con tal de poseer un excelente lugar para esta clase de juego (Mugartegi, 1927:141-142).

egun Arkupe etxeko arkuak dauden tokian zegoen). Lehen frontoi horri “El siete” (zazpia kantxaren oin-planoari deitzen zaio) deitzen zioten herritarrek, eta geroago “Beko-losa”.

Dena dela, frontoi hura txikia izanik, 1797an, Markinako udalak frontoi handiago bat eraikitzea erabaki zuen (Xemeingo herriak frontoia zuen Bekobentan, baina ez dakigu noiztik). Frontoi berri hori gaur eguneko frontoi handiaren kanpoko aldean zegoen, eguenetan azoka egiten den inguruan (kultur aretoaren azpian)⁵.

Markinarrek ez zuten frontoia edozein tokitan eraiki. Markinako toki neuralgikoa aukeratu zuten horretarako: Karmengo elizaren, Karmengo iturriaren eta zelaiaren alboan.

1852. urtean, 1798an eraikitako frontoia berreraiki egin zuten. Zabaldu egin zuten Zelai alderantz, eta luzatu Goiko Portalerantz.

1883an, handitu egin zen frontoia, hain zuzen ere, eskularruarekin eta joko garbia pilota modalitateetan jokatu ahal izateko. Kontuan izan modalitate hauetara jokatzeko frontoi luzeagoak behar direla.

1892an, orientazioa aldatu zitzaion frontoiari, eta gaur egun dagoen tokian gelditu zen (Mugartegi, 1927:147 eta Lorenzo, 1996:190).

Esku pilotak garrantzia handia izan zuen XIX. Mendean, baina XIX. Mendearen bukaeran markinar-xemeindarrak

⁵ Frontoia XVIII. mendearen bukaeran eraiki zen, hain zuzen ere, Markina bere itxura aldatzen hasi zen garaian. XVIII. mendearen bukaeran, etxea asko berriztatu ziran, herria inguratzen zuen harresia botatzen hasi ziran, kaleak konpondu ziran (1783) eta plazatxo bi egin ziran San Pedro elizaren inguruan (1783). Markinarren historian garrantzi berezia izan duten hainbat eraikuntza ere garai hartakoak dira: Goiko Portaleko iturria (1787-1788), hiltegi berria (1791), udal arrandegia (1885) eta iturria (1790), Mesedetako eliza (1793) eta frontoi berria (1797). Beste eraikin guztiak bezala, frontoia XVIII. Mendearen bukaeran Markinak bizi izan zuen eraldaketaren erakuslea da.

zesta-puntan jokatzen hasi ziren, eta pilota modalitate hau be-rehala errotu zen⁶.

Frontoiaren eta zesta-puntaren gorakada XX. mendearekin etorri zen. Zesta-punta joko izatetik kirol profesionalizatu iza-tera pasatu zenean.

XX. mendearen hasieran zesta-puntak hartu zuen indarra eta mundu mailako hedakuntza kontuan hartuta, 1928an fron-toia estali egin zen; herritarrek inguruko frontoiekin lehiatuko zuen goi mailako frontoia nahi zutelako.

Udalak ez zuen diru askorik horrelako lan bat egiteko, bai-na beste herri batzuetan eraikitzen ari ziren frontoi estaliek egiten zuten lehiari aurre egiteko, lanekin aurrera egitea era-baki zuen, eta horretarako Elkarte Anonimo bat sortu zuen (Bilbao, 1995:36).

Gerra zibila hasi zenean, 1936an, frontoia errepublikaren aldekoen autoak gordetzeko eta konpontzeko garaje bihurtu zen. Bonbardaketa asko jasan zituen eta oso kaltetua gelditu zen (Juaristi, 2011).

Edozelan ere, Markinan eta Xemeinen zesta-puntarako ze-goen afizioak eraginda, 1949an, frontoia konpondu eta berriro hasi ziren zesta-puntan jokatzen.

Gerra ostean, ezinezkoa zen bertan pilotan jokatzea. 1949. Urtera arte ezin izan zen bertan jokatu (Bilbao, 1995: 36).

1955. urtetik aurrea, afizioa asko hasi zen, eta profesiona-len arteko zestazko pilota partidak ugaritu egin ziren. Orduan hasi zitzaion deitzen "Pilotaren Unibertsitatea". Aurretik "Fron-

⁶ Mugartegik zera esaten zuen 1927an: "En la actualidad y dada la exten-sión que ha adquirido el juego de la pelota, el Frontón de Marquina es un centro de aprendizaje, viéndose durante todas las horas del día, muche-dumbre de gente joven que con todo afán está dedicada a este varonil sport, en espera de pingües contratas para las canchas de Europa y América (Mugartegi, 1927:147).

ton Municipal” (udal pilotalekua) zena “Pilotaren Unibertsitatea” bihurtu zen, zesta-puntako pilotari onenak bertatik ateratzen zirelako.

1966an, aterpe berria egin zioten frontoiari, Kastor Uriarte arkitektoak egindako proiektua jarraituz (Lorenzo, 1996:190).

Ordutik hona ere, hainbat aldiz konpondu, pintatu edo berriztatu da. Egia esan, gaur egun daukagun frontoia hainbat berriztatu eta aldaketan ondorioa da; aurreko belaunaldien sakrifizio ekonomikoen, lanen eta buruhauste askoren emaitza⁷.

Espazio antropologikoa da, sinbolikoa, herritarrak elkartzeko, eta euskal kulturarekin, pilotarekin eta identitatearekin bat egiteko tokia da. Komunitate emozionala da. Beraz, herritarrak eta herria aldatzen joan diren heinean, frontoia ere aldatzen joan da.

Frontoiaren alde iluna

Frontoia ondare materiala eta ez-material aberatsa da, eta, gutxienez azken 300 urteotan, markinar-xemeindarrek maitasun handia izan diote. Hala ere, dena ez da kolore arrosakoa. Frontoiak krisi garaiak ere bizi izan ditu.

Frontoiak 70. hamarkadan bizi izan zuen urrezko garaia: hainbat ziren munduan zehar jokutzen ari ziren zestalari markinar-xemeindarrak⁸, eta frontoia asko erabiltzen zen, bai zesta-puntan ikasteko zein partidak eskaintzeko. Jende askok gogoratzen du Karmen jaietan garai hartan frontoian izaten zen giroa.

Dena dela, urrezko garai hau 90. hamarkadan ahultzen hasi zen.

⁷ Frontoia egitea erabaki zuten momentuari buruz hitz egitean, Mugartegik argi adierazten du udalarentzat sakrifizio ekonomikoa izan zela (Mugar-tegi, 1927:142).

⁸ 1975ean, adibidez, Miamiko Jai Alai frontoian, 15.500 ikusle bildu ziren gabonetako funtzioan (Saenz, 2018).

Amerikako Estatu Batuetan 1988an hasi zen grebak⁹, esku pilotak eta beste kirol eta entretenimendu batzuk Euskal Herrian hartu zuten garrantziak eta beste hainbat faktorek zesta-puntaren gainbehera ekarri zuten, eta horrek eragina izan du Markina-Xemeingo frontoian ere. Izan ere, kanpora zihoazen pilotarien kopurua murrizten joan den heinean, frontoiaren erabilera ere murrizten joan da.

Azken 30 urteotan, frontoiak lehen zuen erakargarritasuna galdu egin du? Agian, hori baieztatzea asko esatea da, baina bai iruditzen zait gutxiago erabiltzen dela.

Gogoratzen dut 70. hamarkadan nire adineko mutilek arazoak izaten zituztela ensaiatzeko orduak aurkitzeko, eta eguerdian jokatzeko zutela.

Egia da, gaur egun, garai hartan baino ume eta gazte gutxiago dagoela; baina iruditzen zait erabilera asko gutxitu dela.

Bestetik, esango nuke ekitaldi kulturaletarako ere gutxiago erabiltzen dela. Ez daukat daturik, baina sentsazio hori daukat.

Frontoia frustrazio gune ere izan da. Pilotari onak atera dira. Frontoiak kanpora joateko eta profesional bihurtzeko aukerak eman dizkie hainbat gazteri, baina asko izan dira ahalegin eta ilusio asko jarri ostean, kanpora jokatzera joateko aukerarik izan ez dutenak edo pilotari profesional bihurtu ez direnak. Batzuentzat, frontoia frustrazio gune izan da.

Jokoan diru asko galdu dutenak eta zor galantak egin dituztenak ere egon dira. Frontoia askoren galgarria izan da.

Ezin dugu ahaztu, bestalde, garai batzuetan (bereziki pilotarietara diru asko irabazten zuten urteetan; hau da, 60. eta 70. hamarkadetan) egon dela zestazko pilotarien eta pilotari ez

⁹ Juan Antonio Compañonek zera zioen Amerikako Estatu Batuetako frontoien gainbeherari buruz (2002:4-5): "Todo este declive vino por la huelga realizada desde el año 1988, durante tres años, en donde se empezaron a cerrar frontones y a convertirlos en casinos o canódromos".

diren herritarren artean nolabaiteko haserrea, norgehiagoka edo aharra. Pilotarien arabera, horren oinarrian inbidia zegoen, pilotariek bizi modu ona zutelako eta diru asko irabazten zutelako. Pilotariak ez zirenek pilotariak herrira etortzen zirenean izaten zuten harrokeria azpimarratzen dute.

Frontoia gizonen esparrua izan da? Orain dela gutxi arte, zesta-punta gizezkoen kirola izan da (Mugartegik (1927:147) “varonil sport” bezala definitzen zuen)¹⁰. Dena dela, emakumeek harreman estua izan dute zestaren munduarekin (zestak eta pilotak egiten eta konpontzen, munduan zehar euren senar pilotariek bizitzen...). Egia esan, Markina-Xemeingo emakumeek zesta-puntarekin izan duten harremana behar bezala ikertu eta baloratu gabe dago. Are gehiago, nahiz eta azken urteotan Zesta-puntaren Lagunak elkarteak lanean ari den zesta-puntaren memoria historikoa berreskuratzen (<http://zestapuntarenlagunak.eus/eu/content/zesta-puntaren-lagunak>) eta Migel Angel Bilbaok zesta-punta inguruko hainbat liburu argitaratu dituen, iruditzen zait zesta-puntari loturiko memoria historikoaren parte garrantzitsu bat galdu egin dela, besteak beste, markinar-xemeindarrok ez dugulako jakin ondare ez-material hau behar bezala baloratzen eta gordetzen.

Aipagarria da gaur egun zesta-puntak eta esku pilota elkarrekin bizi direla frontoian, baina armonia hori lortzea ez zela erraza izan. Zestolari askori ez zitzaaien asko gustatu esku pilota eskola “Pilotaren Unibertsitatean” sartzea. Gehiegi esatea bada ere, esku pilota zesta-puntaren espazio ikonikoan sar-

¹⁰ Lehen puntista Maria Unzueta eibartarra izan omen zen. 26 urterekin utzi zuen, 1904an Añamendi Entziklopedia: <http://aunamendi.eusko-ikas-kuntza.eus/artikuluak/artikulua.php?id=eu&ar=138177>. Hamarkada batzuk geroago Izaro Arbe izan da kirol hau egitera ausartu den lehen emakumea. Gaur egun, inoiz baino emakume zestolari gehiago dago. Guztira, Markina-Xemeingo zesta-punta eskolan, 100 bat ikasle dabilta, eta horietatik 12 bat emakumeak dira (Saenz, 2018).

tzea, askori iruditu zitzaion zesta-puntaren tenplu sakratua bortxatzea zela.

Azkenik, iruditzen zait, frontoiak eta, oro har, zesta-puntak berrikuntzarako gaitasun gutxi izan dutela. Polimerozko zesta, GoPro kamerak pilotarien kaskoetan, pilotariak mikrofonoekin, desmuntatzen diren kristalezko frontoiak... azken urteotan pausoak ematen ari dira, baina, nire ustez, zesta-puntari eta frontoiei asko kostatzen ari zaie gizarte posmoderno honetara ohitzea. Gonzalo Beaskoetxeak zioen bezala (2012): "Denok dakigu, agian, 130 urtetan eboluzionatu ez den kirol bakarra dela". Zentzu horretan, beste kirol batzuk lortu duten maila lortzeko, frontoiak eta zesta punta berrikuntzaren bidean sartu behar dira.

Frontoia: gure identitatearen parte

Frontoia kirola egiteko edo herrigintzarako azpiegitura bat da, baita ondare ez-materialaren iturri aberatsa ere. Baina zer-bait gehiago da: gure identitatearen parte da.

Begiak itxi eta Markina-Xemeini buruz pentsatzen dugun bakoitzean, ze espazio agertzen zaizkigu buruan? Ze espazio-rekin identifikatzen gara markinar-xemeindar gehienok? Ze toki daude gure iruditegi kolektiboan?¹¹

Bakoitzak bere espazio kutunak izango ditu, baina markinar-xemeindarron iruditegi kolektiboan dauden eta markinar-xemeindar bezala zeharo identifikatzen garen espazioen artean daude, nire ustez, alde zaharreko kaleak, goiko portaleko iturria, zelaia, udaletxe zaharra eta berria eta, nola ez, frontoia. Denok partekatzen dugun irudi kolektibo horrek

¹¹ Iruditegi kolektiboa (Morin, 2001) gizatalde batean onartzen diren eta komunak diren balio, sinesmen, mito, ikur, itxaropen, moral, arau eta ideiak dira. Egia esan, identitatea adierazteko beste kontzeptu bat da. Gure ideologia politikoen gainetik, markinar-xemeindarrok badugu iruditegi kolektibo bat, herri kontzientzia ematen diguna.

egunero sortzen eta birsortzen du gure identitatea. Toki hauekiko identifikazioak talde bateko kide egiten gaitu; gure herriari barne-batasuna edo kohesioa ematen dio.

Nire ustez, frontoia markinar-xemeindarron iruditegi kolektiboaren parte garrantzitsua da; nagusiki markinar-xemeindarron ikur bat delako, sinbolo bat, kirol eta kultur aktibitateetatik haratago doan identitate-sentimendu bat da.

Zer da Markina-Xemein? Pilotak eta frontoiak markatutako herria da. Eta hori esaten dudanean, kontuan hartu behar da azken 130 urteotan zesta-puntak markatu duen herria dela, nahiz eta ezin den ahantzi Markina-Xemeinen ez dela zestaz bakarrik jokatu. Eskuz, palaz, erremontez eta erraketaz ere ezagun egin izan dira hainbat pilotari markinar-xemeindar¹².

Gaur egun dugun frontoia markinar-xemeindarron baloreen, desioen eta mundu-ikuskeraren emaitza da. Eta, modu berean, gu guztiok frontoiak sortzen duen espazio hutsaren ondorio antropologikoa gara.

Espazio horretan sartzean, balio batzuen, tradizio kultural baten eta identitate baten jabe egiten gara; gure herriaren memoria historikoaren jabe. Frontoiaren baitan “komunitate emozional” bat sortzen da (Barbara Rosewein, 2006). Frontoiak urteetako erabilerak eragindako marka ugari ditu, baina, era berean, frontoiak gu ere markatu gaitu. Gure identitatea hiru horma horiek duten esanahiari lotuta dago.

¹² Eskuzko pilotarien artean aipagarriak dira, esate baterako: Julian Baskaran, Jose Agirre-Elexoste (“El Cura Laba”), “Gaztia”, Benito Abaitua (“Sugarriri”), Agirresarasua anaiak (“Hermanos Pello”), Juan Jose Azkuna (“Pola”) eta Jose Andres Arrate (“Txandrio”). Egia esan, beste modalitateok ez dira horrenbeste jokatu izan gure herrian, baina adibide legez horra hor: Luis Arakistain, palaz; Roberto Bustingorri (“Vega”), erremontez; eta Felipa Mallukiza, Kristina Oliver eta Ana Rosa Egia, erraketaz (Bilbao, 1995:33):

Eta etorkizuna?

Marc Augé bere *Los no lugares. Espacios del anonimato. Una antropología de la sobremodernidad* (1993) liburuan "ez lekuak" kontzeptua sortu zuen iragankorrak eta anonimoak diren lekuak izendatzeko. Lekuak dira, Augé-rentzat, harremanetarako espazio egokiak direnak; hots, berezko identitatea dutenak. Ez-lekuak bestelakoak dira: autopistak, hotelak, aireportuak edo azalera handiko saltokiak... toki hauetan jendea biltzen da denbora labur batez (hegazkinaren edo autobusa-
ren zain, erosketak egiten edo hotel batean egun batzuk pasatzen), baina bertan elkartzen diren gizakien artean ez da harreman sakonik sortzen.

"Ez lekuak" ugaritzen ari diren gizarte posmoderno honetan, frontoia "lekua" da. Besteak beste, harreman sakon eta zuzenetarako, herrigintzarako eta identitatea sendotzeko esparrua delako. Beraz, garrantzitsua da datozen belaunaldiei modu egokienean pasatzea. Eta horrek eskatzen duena da etorkizuneko belaunaldien beharriari buruz gogoeta egitea, eta frontoia beharrian horietara egokitzea.

Zer izan behar da frontoia etorkizunean?

Pilotan jokatzeko gunea izan behar da, zelan ez. Baina hori baino gehiago izan behar da.

Orain arte bezala, frontoia zesta-puntak, esku pilotak eta ekimen kultural eta soziopolitikoek tokia izango duten esparrua izan behar da. Denok lekua izango dugun plaza publikoa izan behar da. Gizarte bizitzari loturiko ekosistema bat izaten jarraitu behar du.

Frontoia balio positiboak bultzatzeko esparrua izan behar da. Markina-Xemein ze balioekin lotu nahi dugu? Zer izan nahi dugu etorkizunean? Nire ustez, frontoia aukera berdintasuna, ardura, elkartasuna eta gizarte justizia bultzatzeko gunea izan behar da.

Kohesio soziala bultzatzeko gunea ere izan behar da; integrazioa eta aniztasunezko bizikidetzaz sustatzeko espazioa. Kontuan izan gaur egun Markina-Xemeinen atzerrian jaio-takoak biztanleriaren %14,22 dira. Frontoiak paper garrantzitsua jokatu dezakete etorkinen integrazioan, eta, beraz, baita herriaren kohesio sozialean.

Gure herri-identitatea sendotzeko, nortasun propioa eraikitzeko gunea izan behar da.

Gure memoria historikoa jorratzeko gunea izan behar da. Orain ere gure memoria historikoa jorratzen duen museo bat da frontoia, eta bide horretatik jarraitu beharra dago. Frontoia-
ren inguruan sortu den ondare ez-materiala zaindu eta garatu beharra dago. Frontoia-
ren inguruan dagoen memoria berreskuratu, ezagutarazi eta ondorengoei transmititu beharra dago.

Baliabide ekonomikoa izan behar da: turismoa erakartzeko zein taberna eta denden garapen ekonomikoa bultzatzeko gunea.

Hasieran esan bezala, markinar-xemeindar identitatea sendo dago. Dena dela, gure herria egunero aldatzen ari da. Etengabe sortzen eta birsortzen ari da. Eta frontoia ere aldatzen eta egokitzen joan behar da, etorkizuneko markinar-xemeindarrei aberastasuna, identitatea, memoria historikoa eta kohesio soziala ematen jarraitzeko.

Bibliografia

- Auge, M. (1993): *Los no lugares. Espacios del anonimato. Una antropología de la sobremodernidad*. Gedisa.
- Baraiazarra, L. (2009): *Nire sasoiko Markina-Xemein*. Markina-Xemeingo Udala.
- Barinagarrementeria, M.D. (1989): *El medio rural de Markina-Xemein 1950-1985*. Markina-Xemeingo Udala eta Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo.

- Beaskoetxea, G. (2012): "Este es el camino". <https://www.manista.com/este-es-el-camino-por-gonzalo-beaskoetxea/>
- Compañon, J. A. "Konpa" (2002): Análisis multidisciplinar de la cesta punta. <http://www.juanankonpa.com/wp-content/uploads/2015/09/An%C3%A1lisis-multidisciplinar-de-la-cesta-punta.pdf>
- Lorenzo, F (1996): *Markina-Xemein*. Bizkaiko Herrien Monografiak. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- Bilbao, M. A. (1982): *Las Fiestas Euskaras de Markina año 1883*. Markina.
- Bilbao, M. A. (1995): *La villa de Markina-Xemein*. BBK, Bilbo.
- Bilbao, M. A.: <http://www.markina-xemein.eus/es-ES/Turismo/Deporte/Paginas/GaztiaetaSugarri.aspx>
- Bilbao, M. A. (2009): *Cesta Punta. Los profesionales de la especialidad*. Lizarra Grafikagintza.
- Juaristi, P. (2011): *Markinako Frontea. Markinako eta Xemeingo Egoera Politikoa eta Soziala Bigarren Errepublikan eta Gerra Zibilean*. UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Morin, E. (2001): *El cine o el hombre imaginario*. Barcelona, Paidós.
- Mugartegi, J. J. (1927): *La Villa de Marquina*. Monografía histórica. Bilbao.
- Rosenwein, B. (2006) *Emotional Communities in the Early Middle Ages*. Londres, Cornell University Press.
- Saenz, M. (18-6-3): "Canción triste del Jai Alai". *Naiz*: https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/7k/editions/7k_2018-06-03-07-00/hemeroteca_articulos/cancion-triste-del-jai-alai

Patxi Juaristi